

Laudioko Udala

Laudio Udaleko alkate-udalburuak 2018ko martxoaren 23 eguneko 0570 Dekretu ebazpe-
nez onartu duen 2018ko Sostengurako Laguntzen Udal Programaren deialdiaren laburpena.

Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin
bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean
kontsulta daiteke.

Lehenengoa. Onuradunak:

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzako Laguntza Osagarria arrazoi ezberdi-
nengatik jaso ezin dituzten eta, jasaten ari diren gizarte-babesgabetasun egoeratik, beraien oina-
rizko beharrianak asetzeko diru-laguntzak behar dituzten pertsonak eta familiak.

Bigarrena. Xedea:

Ematea diru-laguntzak pertsonen eta familien arloko arazodun egoerei aurre egiteko, beti
ere DSBE eta ELO arautzen duen legeriak horien tratamendua ez baitu aurreikusten.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:

Alkate-udalburuaren 2018ko martxoaren 19 eguneko 0483 Dekretuz onartu diren eta
2018ko martxoaren 23ko 35 zenbakia duen ALHAOn argitaratu diren 2018-2022 aldirako *Sosten-
gurako Laguntzen Udal Programaren* oinarri arautzaileak.

Laugarrena. Zenbatekoa.

Ekonomia zuzkidura 225.000,00 eurokoa da eta gastua babestu duen aurrekontuko diru
saila bada Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloko aurrekontuko 0700-2311-480.20.

Bosgarrena. Epea:

ALHAOn oinarriak argitaratuta agertzen diren biharamunetik hasita, 2018ko abenduaren
31ra arte.

Laudio, 2018eko martxoaren 23a

Alkate-udalburua, Jon Iñaki Urkixo Orueta.